



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2022ko irailaren 26koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Leioako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Lamiakoko dartsenaren inguruan (17A, 17B, 18A eta 18B eremuak) aldatzeko irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2022ko uztailaren 20an, Leioako Udalaren eskaera bat jaso zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Leioako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Lamiakoko dartsenaren inguruan (17A, 17B, 18A eta 18B eremuak) aldatzeko ingurumen-azterketa estrategikoren irismen-dokumentua emateko eskatuz, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitaion Leioako Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak 68. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 8. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Formulaztea, ingurumen-ondoreetarako soilik, Leioako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Lamiakoko dartsenaren inguruan (17A, 17B, 18A eta 18B eremuak) aldatzeko ingurumen-azterketa estrategikoren irismen-dokumentua (aurrerantzean, Plana), honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Hirigintza Sailaren 360/1999 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu eta 784/1999 Foru Aginduaren bidez zuzendutako indarreko Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO), 17A eta 17B eremuak hiri-lurzoru industrial gisa mugatu zituen, eta 18 eremua lurzoru urbanizaezin gisa. 2010eko uztailan, behin betiko onartu zen 18 eremuari dagokion HAPOn Aldaketa Puntuala, eta azpiegituren sistema orokorrari lotutako lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatu zen. Ondoren, 2013ko otsailan, behin betiko onartu zen 18-B AXA eremuari dagokion HAPOn Aldaketa Puntuala, zeinaren bidez 18 eremuaren barruan 18B-AXA izeneko hiri-lurzoru finkatugabeko eremu bat sortu zen. Aldaketa horrek 18B eremuan hirugarren sektoreko erabilera izango zuen eraikin bat eraikitzea aurreikusten zuen, oraindik ere eraiki ez dena, eta 18 eremuko bide-trazadura berrantolatzen zuen.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, orain izapidetzen ari den Plana, funtsean, 17A (24.602 m²), 17B (42.263 m²), 18B (39.720 m²) eta 18A (179.059,80 m²) eremuei dagokie. Azken eremu horretan, hori bai, kanpo uzten dira Lamiakoko ponpaketa-estazioak okupatutako lurak. Era berean, lurzoru urbanizaezineko azalera txiki bat sartzen da (3.146,31 m²) 17B eremuaren ondoan.

Planaren xedea aipatu eremuetako indarreko hirigintza-araubidea egokitu eta Lamiakoko hirigintza-eraldaketa osatzea da, horrela bertako bizigarritasun-baldintzak eta paduraren kontserbazio-egoera hobetuta. Horretarako, honako lan hauek aurreikusten dira: Lamiakoko eta Leioako geltokien arteko zatian

Metroaren trenbidea lurperatzea, itsasadarraren ondoan berdegune publiko handi bat sortzea, Lamiako inguruan Gobela ibaiaren ibilgua eta bokalea aldatzea bertako jatorrizko padura-sistema leheneratzen laguntzeko, Lamiakoko hirigintza- eta ingurumen-berroneratzea osatzea berdegune publikoko espazioan eta beste bizitegi-garapen bat gauzatzea.

Planak 17A eta 17B eremuen kalifikazio orokorra aldatzen du hiri-lurzoru industrialetik bizitegi-lurzorura, Felipe del Río eta Langileria kaleen artean beste bizitegi-garapen bat gauzatu ahal izateko. Metroaren trenbidea lurperatuta eta Gobela ibaiaren ibilgua aldatuta, garapen berriak lotura zuzena izango du Langileria kalearekin, eta, ondorioz, ondoko auzoen hiri-bilbean sartuta geratuko da.

Gobelaren ibilgua gutxi gorabehera Lamiakoko metro-geltokitik ibaiaren bokalera aldatuko da; zehazki, laburtu egingo da, proiektatutako Lamiakoko Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazioaren paraleloan joan dadin, Nerbioi itsasadarreko beste puntu batean itsasoratu arte. Ibilgu berria lurpean igaroko da zati batean, Felipe del Río kalearen azpitik zehazki. Gobela ibaiaren ibilgua aldatzeak itsas-lehorreko jabari publikoaren, itsasoaren erriberaren eta haren babes-eremuen (igarotzea eta zortasuna) konfigurazioa ere aldatuko du.

Felipe del Río kaleak eta Autonomia etorbideak mugatutako okupaziorik gabeko erdialdeko lursailei dagokienez, Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazioa hartuko duen lursaila azpiegituren sistema orokor gisa antolatuko da, eta, gainerako tokia, erabilera publikoko espazio libre gisa –bizitegi-lurzorutzat kalifikatutako Felipe del Río kalearen ondoko lur-zerrenda bat salbu–. Gaur egun itsasadarraren mugan zehar doan errepidea desagertu egingo da. Bestalde, gaur egun Euskotreneko garajeak hartzen dituen lursaila mantendu egingo da.

Ekialdetik mugakidea den 19E1 eremua Aldaketa Puntualak eragindako esparrutik kanpo geratzen da. Hala ere, Planean jasotako aurreikuspenen arabera, Gobela ibaiaren ibilgua desbideratzeko proposamenak eragina izango du bertan.

Bi eremu berri definitu dira, Dartsena 1 eta Dartsena 2 izenekoak. Dartsena 1 eremuak 104.496,76 m²-ko azalera du; horietatik 30.623,87 m² sistema orokor gisa antolatzen dira eta 18.979,25 m² itsas-lehorreko jabari publikoaren parte dira. Dartsena 2 eremuak 144.209,50 m²-ko azalera du; horietatik 84.829,85 m² sistema orokor gisa antolatzen dira eta 9.047,56 m² itsas-lehorreko jabari publikoaren parte dira.

Lau garapen aukera aztertu dira:

- 0 alternatiba: Plangintzan indarrean dauden aurreikuspenak mantentzea.
- 1. alternatiba: 17A eta 17B eremuak birkalifikatzea, hiri-lurzoru industrialetik bizitegi-lurzorura. 18B-AXA eremurako aurreikuspenak mantendu egiten dira. Azpiegitura hidraulikoak murriztu egiten dira; Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazioa ezartzeko behar den azalera mantendu egiten da, baina gainerako sistema orokorra espazio librerara bideratu. HAPOn zehaztutako Metroaren trenbidearen, Gobela ibaiaren eta 18. eremuko bideen egoera mantendu egiten da. Beste bizitegi-garapen bat zehazten da Gobela ibaiaren eskuinaldean zehar. 67.435,2 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna du, 7.492 m²-ko merkataritza-eraikigarritasuna eta 81.249 m² berdegune.
- 2. alternatiba: 1. alternatibaren antzekoa da, baina Metroa lurperatzea eta Gobelaren ibilgua aldatzea proposatzen du. Beste bizitegi-garapen bat zehazten da Felipe del Río kalean. 106.602 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna du eta 81.249 m² berdegune.
- 3. alternatiba: 2. alternatibarekin alderatuta, azpiegitura-sistema orokorrekin (hondakin-uren araztegia) lotutako 18A eremuko lurra birkalifikatzea aurreikusten du, baita 18B-AXA eremuaren zati bat eta Euskotreneko garajeak ere. 124.760 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna du, 27.956,50 m²-ko merkataritza-eraikigarritasuna eta 132.750 m² berdegune.

- 4. alternatiba: 3. alternatibaren antzekoa da. Alde nagusiak Felipe del Río eta Langileria kaleen arteko bide-loturetan eta etxebizitza batzuen konfigurazioan egindako aldaketak dira. 124.760 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna du, 27.956,5 m²-ko merkataritza-eraikigarritasuna eta 132.750 m² berdegune. Planak hobesten duen alternatiba da.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasuneko irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan zehaztutako irizpideak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak, eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako jomuga eta printzipioak.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarriko bizi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
- e) Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna ere.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak zein egokitzapen neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Planaren esparrua Lamiakoko dartsenan dauden lursailekin bat dator. Lursail horiek Langileria kaleak mugatzen ditu iparraldean, Autonomia etorbideak hegoaldean, Felipe del Río kaleak mendebaldean eta Gobela ibaiak ekialdean. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, esparruak 25 hektareako azalera du gutxi gorabehera.

- Plana esparru artifizializatu bati dagokio; uneotan, bertako zati bat hainbat eraikin eta espazio urbanizatu hartzen dute, eta horietako batzuk gaur egun ez dira erabiltzen. Ildo horretan, esparruan dauden intereseko balio natural nagusiak iparraldeko eta ekialdeko mugetan zehar daude, Gobela ibaia baitago bertan. Horrez gain, Autonomia etorbideak eta Felipe del Río kaleak mugatutako lursailak ere aipatu behar dira, eraldatuta dauden arren, ez baitaude okupatuta eta intereseko fauna- eta flora-espezieak hartzeko baliagarriak baitira. Esparruaren hegoaldean, berriz, Nerbioi itsasadarra dago.
- Esparrua Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari dagokion Ibaizabalgo Unitate Hidrologikoan dago. Esan bezala, Gobela ibaia esparruaren ipar eta ekialdeko mugatik igarotzen da, eta Nerbioi itsasadarrean itsasoratu, Udondo ibaiarekin batera, aztertutako esparruaren hegoaldeko muturrean. Nerbioi itsasadarra esparruaren hegoaldeko mugan zehar doa. Ibilgu horiek oso eraldatuta daude uneotan, ibilbidearen zatirik handienean ibaiak bideratuta baitaude. Aipatu ibilguak trantsizioko barneko Nerbioi ur-masa (ES111T068010) gisa identifikatzen dira, eta itsas-lehorreko jabari publikoan sartuta daude.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak (aurrerantzean LAP), bere osagai hidraulikoa kontuan izanik, 0 mailakotzat jotzen du Gobela ibaia (1-10 km² arteko isurialdea duen artoa) eta VI mailakotzat Nerbioi ibaia (600 km²-tik gorako isurialdea duen artoa). Planak zehaztutako esparruan, berriz, ibaion ertzak garatutako guneeetan dauden ibaiertz gisa identifikatzen dira, eta, puntualki, landa-eremuko ibaiertz gisa. Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak, bestalde, III. multzoko hezegune gisa identifikatzen du Lamiako ibarra (Kodea: A1B6_01 Lamiako ibarra / Vega de Lamiako). Zona horrek Lamiako ibarraren erdialdeko zati handi bat hartzen du, baita marearteko lohien ingurua ere, BI-711 errepidearen hegoaldean, Nerbioi itsasadarrean.
- Esparruko material litologikoak estuarioetako lohiekin eta betegarri antropikoekin osaturiko gainazaleko deposituak dira, eta, duten porositatearen ondorioz, iragazkortasun txikikoak dira.
- Aztertutako esparrua Hegoaldeko Antiklinorioa lurpeko ur-masaren gainean dago, eta ez dago interes hidrogeologikoko inongo eremutan kokatuta. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroan jasotako inongo ezaugarriekin ere ez du bat egiten.
- Landaredia espezie erruderal eta nitrofiloekin osatuta dago hein handi batean eremu urbanizatu eta eraldatuetan, eta, Gobelaren ibilguan zehar, berriz, koniferoen ilarak dira nagusi. Okupaziorik gabeko erdialdeko lursailetan ere badaude zuhaixkak eta zuhaitzak. Sahats, lezkadi eta ihitzak nabarmendu behar dira, habitat onuragarria osatzen baitute intereseko hainbat fauna-espezierentzat, besteak beste, koartzatxo karramarrozalea (*Ardeola ralloides*) eta mokozabal arrunta (*Platalea leucorodia*). Landarediari dagokionez, *Juncus acutus* espeziearen populazioak daude (Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan bakan gisa katalogatzen den flora babestua). Bai Gobelaren ibilgua bai Nerbioi ibaiaren itsasadarra Estuarioetako Batasunaren intereseko habitatak (1130 kodea) dira. Bestalde, flora aloktono inbaditzailea ere oso ugaria da, besteak beste, *Cortaderia selloana*, *Dorycnium rectum*, *Robinia pseudoacacia* edo *Buddleja davidi* bezalako landareak.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra Kudeatzeko Plana onartzen duen ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuan ezartzen denarekin bat, Gobela, Nerbioi eta Udondo ibaiak bisoi europarrarentzat «Hobetu beharreko gune» gisa sailkatuta daude. Kontuan izan behar da bisoi europarra –*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761)– galzorian dagoen eta babesteko neurri bereziak behar dituen espeziea dela. (BOB 06/07/2006)
- Ez dago interes geologikoko tokirik, ez eta naturagune babesturik, natura-intereseko beste espaziorik edo kudeaketa-planek babestutako bestelako espezie mehatxaturik ere. Nerbioi ibaia EAEko azpiegitura berdearen trama urdinean sartuta dago.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, Gobela ibaiaren azken zatia eta Nerbioi ibaiaren itsasadarra, esparrutik ibaian gora, Uholde Arrisku Handiko Eremu gisa katalogatutako «Bilboko itsasadarra» (ES017-BIZ-IBA-01 kodea) eremuko parte dira. Ur-ibilguen bideratze-maila handia dela eta, lehentasunezko fluxu-eremua eta uholde-arriskuko eremuak, funtsean, egungo ibilgura mugatzen dira. Ibaiaren eta Metroaren trenbidearen artean bakarrik daude identifikatuta uholde-arriskuko eremuak, Iturriondo kalearen ondoan.
- Horrez gain, Planak zehaztutako esparruaren barruan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako 48054-00035, 48054-00036 eta 48054-00127 kokalekuak daude identifikatuta, baita Gobelaren ezkerreko lurretan hedatzen den 48054-00042 lurzatia ere.
- Beste arrisku batzuei dagokienez, esparruaren zati handi batean hautematen ez den akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna ematen da; identifikatutako zenbait azalera txiki urrakortasun txiki edo oso txikikoak dira.
- Egoera akustikoari dagokionez, gaur egun, zarata-iturri nagusia kaleetako ibilgailuen eta trenen zirkulazioa da. Esparruaren zati handi bat iparraldetik igarotzen den Bilboko Metroaren linearen Zortasun Akustikoko Zonan sartzen da. 2016an egindako Leioako Zarata Mapan, esparrua, funtsean, industria-eremu gisa identifikatuta dago, eta hirugarren sektoreko erabilerrakoa zona bat eta garraio-azpiegiturako beste bat ere baditu. Mapa horren emaitzen arabera, esparruan 65-70 dB (A) arteko soinu-mailak daude identifikatuta egunean zehar, eta 55-60 dB (A) gauean zehar.

Planaren garapenak izan ditzakeen ondorioak lotuta egongo dira uneotan bertan dauden eraikinak eraisteko obrak gauzatzearekin, Metroaren trenbidea lurperatzearekin, Gobelaren ibilgua desbideratzearekin, eraikin berrien eraikuntzarekin eta urbanizazio-obrekin. Jarduketa horien ondorioz, lurzorua okupatuko da, hondakinak sortuko dira, lur-mugimenduak egin eta soberakinak sortuko dira, makinaren joan-etorriak egongo dira, lurzorua kaltetu daitezke ustekabeko isurketengatik, herritarrek eragozpenak jasan ditzakete emisio atmosferikoengatik eta zaratengatik, eta abar.

Gobelaren ibilgua aldatzeak aldi baterako eragina izango du uren kalitatean lanetan izango diren lur-mugimenduen eta ustekabeko isurketen ondorioz, bai esku hartutako ibilguan bertan, bai oso gertu dagoen Nerbioi itsasadarrean. Horrez gain, bai Gobelaren ibilgua bai ibaia Nerbioi itsasadarrean isurtzen den tokia aldatzeak, bokaletik gertu ematen diren higadura-prozesuak eta sedimentu uzteak aldatzea eragin dezake, eta horrek esparruaren hegoaldean dagoen marearteko lohien azalerari eragin diezaiolke.

Bestalde, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiaren esku hartu ahal izateko, jarraipen berezia egin beharko da, kutsatuta egon daitezkeen lurzorua behar bezala kudeatu daitezela.

Aurreikus daitezke egungo komunikazio-azpiegiturretatik hurbilen proposatutako garapenak soinu-baldintza kaskarrak izango dituztela, eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritako kalitate akustikoko helburuak

gainditu ahal izango direla. Azterketa akustiko espezifikoa bat egin beharko da, arlo horretan indarrean dagoen legeria betetzeko beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ezartzeko.

Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko da, eta justifikatu beharko da, aurreikusitako jarduketaren ondorioz, arrisku hori ez dela areagotuko ez esparruan ez haren inguruan.

Horrez gain, garapenari esker, ingurune mugikortasuna eta paisaia hobetuko dira, eta Lamiakoko dartsenako espazio libreak leheneratzeak paduraren kontserbazio-egoera hobetzen lagunduko du.

4. Jarduerak kokatzeko leku desegokiak

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko. Esparruaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, laburbildu da zein diren ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jasotako txostenetan:

Natura-ondareari dagokionez:

- Lamiakoko dartsenaren inguruan egiten den edozein jarduketaren ingurumen-balorazioan erreferentziatzen hartu behar da Leioako Udalak 2018an sustatutako «Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana» dokumentua. Ekintza-plan horren helburuetako bat paduretako eta ibaietako paisaiak berreskuratzea eta horien balioa nabarmentzea da, ahalik eta naturaltasun handieneko espazio bat bilatuz, egungo egoera eta kokapena kontuan hartuta.

Ildo horretan, uste da erreperatu beharreko espazio berdearen eta Bilboko itsasadarraren arteko lotura hidraulikoa eta funtzionala aldatzeko ingurumen-azterketa estrategikoan aztertu beharreko alternatibetako bat izan beharko litzatekeela. Horretarako, eskatzen da alternatiba gisa aztertzea Gobelaren egungo ibilguaren azken 270 metroak (egungo bokaletik Iturriondo kaleko zubiraino) bere horretan mantentzeko eta Lamiakoko hezegunearikiko lotura funtzionala, hidraulikoa eta ekologikoa ahalbidetzeko aukera. Horrela, gainera, leheneratu beharreko hezegunearen eta Bilboko itsasadarraren, Udondo ibaiaren eta Astrabuduko hezegunearen arteko lotura ekologikoa hobetuko litzateke, horretarako urak har dezakeen eta mareen eraginpean dagoen gune hori baliatuta. Ildo horretan, nabarmendu Hezeguneeen Lurralde Plan Sektorialean jasotako hezegunea naturalizatzea izan beharko litzatekeela jarduketa diseinatzeke irizpide nagusia.

- Gobela ibaiaren ibilgua desbideratzeko proposamenak nekez bermatu ahal izango ditu ibilgu berriak eta Lamiako ibarreko lursailtako etorkizuneko ibai-padurako ekosistemak eskatutako ingurumen-hobekuntzako helburuak; horregatik, beharrezkotzat jotzen da etorkizuneko ibilguaren gaineko beste azterketa bat egitea «Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana» dokumentuko irizpideak jarraituz hezegunearen ingurumen-integrazioa eta erreperazioa bermatuz.

Ildo horretan, ibilguaren desbideratzea irizpide naturalistikoaren arabera egin beharko litzateke, lotura ekologikoa eta hidraulikoa bermatzeko trazadura zuzenak saihestuz eta hezegunea zeharkatzen duten ibilbide kurbatu eta bihurturak bilatuz, ezponda erregularrak eta/edo trapezoidalak eta hormigoizko egiturak saihestuz (ertzetan zein ibilguan), eta ibilgu berria osatzeko bioingeniartzako teknikak erabiliz. Era berean, diseinatu beharreko azpiko pasabideek behar

bezain zabalak eta lasaiak izan beharko dute, konektibitate hidraulikoa ez ezik ekologikoa ere bermatzeko.

- Lamiakoko leheneratze ekologikoa indartzeko, garrantzitsua da ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren beste enklabe batzuekin lotzea. Hori dela eta, garrantzi handiko jarduera litzateke, Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenean jasotzen den bezala, Lamiako Udondo ibaiaren ibarrarekin, Udondoko urmaelarekin eta Astrabuduko hezegunearekin lotzea. Horretarako, Udondo ibaiaren ertzak errekueratzea ere sustatu beharko litzateke.
- Lamiakoko Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazio berriak inbentariatutako hezegunearen azaleraren % 17 okupatzen duela kontuan hartuta, aztertu beharrekoa da padura-lurren artifizializazio gehigarriek (pasealekuak, bidegorriak eta bestelako gunek sortzeko) hezegunearen leheneratze funtzional eta paisajistikoa zaildu dezaketen edo ez.
- Ingurumen aldetik mesedegarriena den 3. alternatiba berriz aztertu behar da, horixe baita dartsena osorik lehengoratzeko proposatzen duen bakarra, eta, ondorioz, Leioako Udalak 2018an egindako «Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana» dokumentuan jasotako irizpide eta helburuei egokien erantzuten diena.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak zehatz-mehatz deskribatu beharko ditu hezegunea lehengoratzeko aurreikuspenak, eta hartutako hirigintza-konponbidea funtzionaltasun ekologikoari egiten dion ekarpenaren arabera justifikatu beharko du.
- Ur-ibilgu, erribera eta ertz guztien egungo egoera, etorkizuneko eta alternatiba bakoitzak bertan izan dezakeen eragina zehatz-mehatz deskribatu beharko da, honako hauek lortze aldera: ibai-lurraldea babestea –dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo errekueratze adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta–; egoera ekologiko ona bermatzea; uraldiak modu naturalean kontrolatzea; ibai-paisaia hobetu eta sendotzea; eta ibaiertzeko korridore jarraitu bat osatzea.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala aztertu behar ditu Planean aurreikusitako bizitegi-garapenekin erantzun nahi diren beharrak, eta planteatutako etxebizitza berriak justifikatu behar ditu, ez bakarrik jarduketa jakin batzuk finantzatzeko premian oinarrituta (Metroa lurperatzea, Gobela ibaia desbideratzea, urbanizazioa, eta abar), baita udalerriko benetako etxebizitza-premietan oinarrituta ere. Bizitegi-garapenek eta Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazioak eragindako ingurumen-ondorioak ere baloratu behar dira. Azterketak jarduketan eragin metagarriak eta sinergikoak analizatu behar ditu.
- Planaren hirigintza-araudiak hezegunea naturalizatzeko jarduketan denbora-programazioa zehaztu behar du. Jarduketa horiek Planean jasotako jarduketan garapenaren hasierako faseetarako aurreikusi beharko lirateke.
- Plana gauzatzean uren kalitatean izan dezakeen eragina aztertu beharko da. Are, prebentzio-neurriak arretaz diseinatu beharko dira ibai eta erreketara sedimentuak, lurrak eta/edo lohiak heldu ez daitezen, iraunkorrak izan ala ez.

Uholde-arriskuari dagokionez:

- Ibilgu-padura multzoaren etorkizuneko konfigurazioak bermatu beharko du aurreikusitako bizitegi-eta merkataritza-garapen berriek ez dutela urpean geratzeko arriskurik.

Itsas-lehorreko jabari publikoari dagokionez:

- Hirigintza-izapidetzearen markoan proposatutako hirigintza-antolamendua eta horren ondoriozko mugaketa-proposamena kostaldeei buruzko araudiarekin bateragarriak izan beharko dira. Horretarako, Euskadiko Itsasertz Mugarteak antolamendu hori baloratzea gomendatzen da.
- Gobelaren ibilgua aldatzeko proposatutako jarduketek itsas-lehorreko jabari publikoa eraldatzea dakarte, eta, beraz, jarduketon ondorioak kostaldeen arloan indarrean dagoen araudian eta EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoaren arabera aztertu behar dira.
- Kontuan izanik Metroaren trazadura gaur egun ibilguaren mugakide dela, eta puntualki itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasun eremuaren barruan ere sartzen dela, Gobela ibaia desbideratzeko eta hezegunea leheneratzeko jarduketak lurperatze-lanen aurretik egin beharko lirarteke ingurune hidrikoari ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Hori guztia, noski, mugaketaren beharrezko aldaketa eragotzi gabe.
- Gobela eta Nerbioi-Ibaizabal itsasadarrei lotutako itsas-lehorreko jabari publikoari eta haren babes-eremuei eragiten dieten jarduketek arlo horretan eskumenak dituzten administrazioen aldeko erabakia izan beharko dute nahitaez: Euskadiko Itsasertz Mugartea –itsas-lehorreko jabari publikoan baimenak eta emakidak emateko eskumena du– eta Uraren Euskal Agentzia –aipatu jabari publikoko babes-zortasun eremuari dagokionez–.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Esparruaren hego-ekialdeko muga inbentariatutako kultura-ondasun bat dago: Udondoko zubia, Isabel II.aren zubia ere deitua. Ondare-balio handia du, Euskadin dagoen galdaketako zubi bakarra baita. Proiektatzen diren etorkizuneko jarduketek zubia bera eta dituen balioak errespetatu behar dituzte, zubiaren egitura-osotasunari eutsiz.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete behar dute:

1. Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumen-zaintzako programa
6. Ingurumen-laburpena

7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko Planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa; bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (gaur egun izapidetzen ari den 2022-2027 bigarren plangintza-zikloko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren aurreikuspenak ere kontuan hartuta).
- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana. Lamiakoko dartsenaren inguruan jarduteko, aipatutako ekintza-plana hartu behar da erreferentziatuz. Plan horren helburuetako bat da paduretako eta ibaietako paisaiak lehengoratzeko eta horien balioa nabarmentzeko, ahalik eta naturaltasun handieneko espazio bat bilatuz, haien egungo egoera eta kokapena kontuan hartuta.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterketak, eta horiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da Gobelaren etorkizuneko ibilguaren beste azterketa bat egitea 2018ko «Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana» dokumentuan jasotako irizpideak jarraituz hezegunearen integrazioa eta ingurumen-leheneratzea bermatuz.

Beste jarduketa batzuen artean, zehatz-mehatz deskribatu beharko dira hezegunea lehengoratzeko aurreikuspenak, eta hartutako hirigintza-konponbidea justifikatu beharko da, haren funtzionaltasun ekologikoari egiten dion ekarpenaren arabera. Gogoratu behar da hezegunea naturalizatzea izan behar dela jarduketa diseinatzeko irizpide nagusia.

Bestalde, planteatutako etxebizitza berrien beharra justifikatu beharko da, ez bakarrik jarduketa jakin batzuk finantzatzeko premian oinarrituta (Metroa lurperatzea, Gobela ibaia desbideratzea, urbanizazioa, eta abar), baita udalerriko benetako etxebizitza-premietan oinarrituta ere.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren planen, proiektuen eta jarduketaren ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta lokalizatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada. Zehazki, xehetasun handiz deskribatu beharko dira ur-ibilguetan, erriberetan eta ertzetan eragina izan dezaketen ekintzak.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

Ildo horretan, kontuan izanik Metroaren trazadura gaur egun ibilguaren mugakide dela, eta puntualki itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasun eremuaren barruan ere sartzen dela, Gobela ibaia desbideratzeko eta hezegunea leheneratzeko jarduketak lurperatze-lanen aurretik egin beharko lirateke ingurune hidrikoari ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta

jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, pdf (geo-erreferentziatuta) eta shape formatuetan.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: lokalizazioa, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Jasotako txostenetan adierazten den bezala, alternatiba gisa aztertu behar da Gobelaren egungo ibilguaren azken 270 metroak (egungo bokaletik Iturriondo kaleko zubiraino) bere horretan mantentzeko eta Lamiakoko hezegunearik lotura funtzionala, hidraulikoa eta ekologikoa ahalbidetzeko aukera. Helburua, leheneratu beharreko hezegunearen eta Bilboko itsasadarraren, Udondo ibaiaren eta Astrabuduko hezegunearen arteko lotura ekologikoa hobetzea litzateke. Bestalde, zehatz-mehatz deskribatu beharko dira ur-ibilgu, erribera eta ertz guztien egungo egoera, etorkizuneko eta alternatiba bakoitzak bertan izan dezakeen eragina.

Antolamendu-alternatiben balorazioan, halaber, eremuaren egungo eta etorkizuneko egoera akustikoa hartuko da kontuan, Ebazpen honetako 3. eta 6.3 apartatuetan aipatutako azterketa akustikoaren emaitzen arabera.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba. Hartutako hirigintza-konponbidea eta Gobelaren ibilgua desbideratzeko proposamena hezegunearen funtzionaltasun ekologikoari egiten dioten ekarpenaren arabera justifikatuko dira.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen esparruan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena –Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunek bakarrik hartuta–.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zeintzuk diren izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

lido horretan, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-aukerak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Aztertuko da ea elementu interesgarriak dagoen pertzepzio-ikuspuntutik.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena. Hala badagokio, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babes kultur-ondasunari.

f. Apartatu honetan egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, besteak beste, mugikortasunari eta garrarioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, eta abar), jendea bizi den gunerik eta kaltetua gerta daitezkeen biztanleria dagoen...

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen lokalizazioa eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak atzeman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Esparruaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta eremu ahulak edo kalteberak ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, Ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu dezaketen alderdiak jabari publiko hidraulikoarekin, itsas-lehorreko jabari publikoarekin, ondare kulturalarekin, intereseko fauna-espezie eta habitatekin, uholde-arriskuarekin, lurzoru kutsatuen kudeaketarekin eta kalitate akustikoarekin lotutakoak dira, eta, horrenbestez, alderdi horiek Azterketan analizatu beharko dira.

6.3. Planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek berezita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragindako aldaketekin lotuta dauden ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Egokitzat jotzen denean, zehaztu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako Planaren efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia egingo da:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak Planak Gobela eta Nerbioi ibaien uren kalitatean eta ibai-dinamikan dituen ondorioak aztertuko ditu, eta behar bezala justifikatuko du Kostaldei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean, Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legean eta jabari publiko hidraulikoa eta itsas-lehorreko jabari publikoa babesteari buruz aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako araudia betetzen dela.
- Ur-ibilgu, erribera eta ertzen gaineko eraginak zehatz-mehatz ebaluatu beharko dira, honako hauek lortze aldera: ibai-lurraldea babestea –dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo errekuiperatzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta–; egoera ekologiko ona bermatzea; uraldiak modu naturalean kontrolatzea; ibai-paisaia hobetu eta sendotzea; eta ibaiertzeko korridore jarraitu bat osatzea.
- Aztertuko da ea Plana bateragarria den «Bilboko itsasadarra» (ES017-BIZ-IBA-01 kodea) Uholde Arrisku Handiko Eremurako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak onartutako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planarekin. Kontuan hartuko da, halaber, izapidetzen ari den 2022-2027 aldiko bigarren plangintza-zikloko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean aurreikusitakoa. Ibilgu-padura multzoaren etorkizuneko konfigurazioak bermatu beharko du aurreikusitako bizitegi-eta merkataritza-garapen berriek ez dutela urpean geratzeko arriskurik.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan bisoi europarra Kudeatzeko Plana onartzen duen ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuan ezartzen denarekin bat, Gobela, Nerbioi eta Udondo ibaien balizko afekzioa ere ebaluatuko da, ibaion ibilguak Foru Dekretuaren aplikazio-eremuaren parte baitira. Kontuan izan behar da bisoi europarra –*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761)– galzorian dagoen eta babesteko neurri bereziak behar dituen espeziea dela.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritakoak, bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean. Ildo horretan, arestian adierazi bezala, Planak zehaztutako esparruaren barruan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako 48054-00035, 48054-00036 eta 48054-00127 kokalekuak daude identifikatuta, baita Gobelaren ezker aldeko lurretan hedatzen den 48054-00042 lurzatia ere.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak. Aurreikus daiteke egungo komunikazio-azpiegituretatik hurbilen proposatutako garapenek soinu-baldintza kaskarrak izango dituztela. Are, posible da bertan Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak gainditzea. Esparruaren antolamendu xehaturako dauden diseinu-alternatibak baloratuko dituen azterketa akustiko espezifiko bat egin beharko da, arlo horretan indarrean dagoen legeria betetzeko beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ezarriko dituen beharrezkoa balitz.
- Gobelaren ibilgua aldatzeko proposatutako jarduketek itsas-lehorreko jabari publikoa aldatzea dakartela kontuan hartuta, jarduketa horien inplikazioak aztertu behar dira, kostaldean arloan indarrean dagoen araudian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planean adierazitakoaren arabera. Adierazi den bezala, antolamendu hori Euskadiko Itsasertz Mugarteak baloratu beharko du.
- Lamiakoko Sistema Unitarioko Gainezkatzeen Tratamendurako Estazio berriak inbentariatutako hezegunearen azaleraren % 17 okupatzen duela kontuan hartuta, aztertu beharrezkoa da paduralurren artifizializazioek (pasealekuak, bidegorriak eta bestelako guneak sortzeko) hezegunearen leheneratze funtzional eta paisajistikoa zaildu dezaketen edo ez.
- Planak eremuan dauden kultura-intereseko elementuak kontserbatzeko irizpideekin duen bateragarritasuna aztertuko da (Udondoko zubia, Isabel II.aren zubia ere deitua).

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - . Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - . Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - . Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatu egingo dira Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatu eta gerta litezkeen plan edo programaren faseekin lotuko da.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den Azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketako 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Oro har, proposatutako garapenak EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean, Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta 2015-2021 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoan ezarritakoa betetzen dela bermatu beharko du. Ezingo dira aldatu, ezta artifizialdu ere, ibaiertzak eta ibai-korridoreari dibertsitate eta funtzionaltasun ekologikoa eta paisajistikoa ematen dioten elementuak, eta haiek leheneratzea, berreskuratzea eta hobetzea sustatuko da ahal den guztietan.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen plan hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko eremuko erabileren mugei dagokienez, bai eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren araudia ere (E.2 apartatua).
- Ingurune hidrikoa babesteari buruzko neurriak: Plana garatzeko jarduketan ondorioz Gobela, Nerbioi eta Udondo ibaietan eraginik ez dagoela bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak identifikatuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak, behar besteko xehetasun-mailarekin. Ibilgu horiek bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) «Hobetu beharreko gun» gisa sailkatuta daude.
- Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeeekin, positiboa).
- Ingurumena eta paisaia lehengoratzeko jarduketa espezifikoak proposatu beharko dira, balorazio ekonomikoa ere kontuan hartuta eta ondorio guztietarako Planari lotuta. Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko eta integratzeko neurriak irizpide hauek kontuan hartuta definituko dira:
 - . Gobela eta Nerbioi ibaien ertzak lehengoratzeko, ahal den neurrian, natura-ingeniaritzako teknikak erabili beharko dira. Trazadurak saihestu egingo ditu trazadura zuzenak eta ezponda erregularrak eta trapezoidalak erabiltzea, eta Planaren ingurunean lotura ekologikoa eta hidraulikoa bermatzea bilatuko du. Haltzadi kantauriarreko berezko espezieak erabiliko dira, ibaiertzaren ahalik eta

naturalizazio-maila handiena bermatuko duen zabalera eta dentsitatean. Uraren Euskal Agentziaren Ibai Eremuko Natura Ingeniaritzako Eskuliburua hartuko da kontuan¹.

- . Hezegunean dauden espazio libreak espezie autoktonoen bidez leheneratuko dira, padurako berezko flora eta fauna espezieen garapena eta presentzia bultzatzeko, eta gunareen kalitatea eta funtzionaltasun ekologikoa areagotzeko.
 - . Obrek aldi baterako eragindako azalerak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren espazio libreetako eremuak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta. Urbanizatu beharreko eremuetan, lhobek argitaratutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburua» kontuan hartzea gomendatzen da.
 - . Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzea bilatuko da, ahal dela horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuz.
 - . Planaren eremuan flora aloktono inbaditzaileko espezieak atzemanenez gero (*Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii* edo beste batzuk), espezie horiek kontrolatzeko eta desagerrarazteko protokolo bat egin beharko da.
- Nolanahi ere, Planeko zehaztapenek bateragarriak izan beharko dute «Lamiakoko dartsenaren inguruko paisaiaren ekintza-plana» dokumentuan aurreikusitakoarekin.
 - Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
 - Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuei dagokienez, horiek behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera: *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea* eta *209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena*.
- Lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat izan duten lurzatietan lurzoruaren erabilera aldatzeari dagokionez, lurzoruaren kalitateari buruzko dagozkion deklarazioak lortu beharko dira, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera.
- Era berean, Lege horren 31.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, honako hauek egin baino lehen eman beharko du lurzoruaren kalitatearen deklarazioa ingurumen-organoak: lurzoru kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lursailaren edo lursailen antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen, edo bitarteko horiek aldatu baino lehen, eta, ahal dela, prozedura horien hasierako faseetan. Hala ere, leku horretan guztian edo zati batean lurzoruaren kalitatea ikertzea eragozten duten egoerak gertatzen badira, kasuan kasuko antolamendu-bitartekoa behin betiko onartu ahal izango da, lurzoruaren kalitatearen deklaraziorik gabe. Kasu horretan, Hirigintzako Ekintzen Programari hasierako onespina eman aurretik egin beharko da deklarazio hori; edo, horrelako programarik ezean, lekua barne hartzen duen kudeaketa-esparruko birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuei hasierako onespina eman aurretik.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - Planetik eratorritako jarduerak errespetatu egin behar dituzte eremuan dagoen kultura-intereseko ondasun inbentarioa (Udondoko zubia edo Isabel II.aren zubia) eta haren balioak, egitura-osotasunari eutsiz.
 - Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu zenbait neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBK

1

egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumen-zaintzako programa

a. Azterketak, ingurumena zaintzeko programa bat egingo du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan efektuak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Uraren Euskal Agentzia, URA.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Euskal Trenbide Sarea (ETS).
- Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarearen Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako atala. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, hala badagokio, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiko Bizkaiko kostaldeetako zerbitzu probintziala (Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa).
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).
- Lanius Ornitologia Elkarte.
- Izate Ingurumen Elkarte.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/tramitacion-del-procedimiento-de-evaluacion-ambiental-estrategico/web01-a2inginp/es/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/2022_GUIA-presentacion-documentacion_v4.pdf

Bigarrena. – Ebazpen hau Leioako Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailak 26.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo